

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Aita Donostia plazaren gaineko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Ematen du Gobernu Taldeari beste inori ere ez zaiola gustatu Aita Donostia plaza eraldatu eta gero nola gelditu den. Trafiko eta mugikortasun arazoa sortu da halakorik inoiz ere ez zen lekuan. Auzokoak, Dbuseko gidariak, ospitaleetako erabiltzaileak... inor ere ez dago ados hasiera-hasieratik denak harritu dituen proiektu horrekin.

Hori dela eta, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio berriz ere bikoizteko Errondo pasealekuaren azkeneko zatia, Aita Donostia plazara iritsi aurrekoa, eta trafiko-fluxu egokia izatea bermatzeko han, erabiltzaileak eta profesionalak ospitaleetara ahalik eta azkarren ailegatzeko modua izan dezaten.
2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio aldatzeko Aita Donostia plazaren hego-mendebaldeko ertza, autobusek behar bezala biratu ahal izateko han.
3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio erakusteko Aita Donostia plaza eta haren ingurua eraldatzeko oinarri izan diren mugikortasun-azterlanak.

4. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio argitaratzeko Aita Donostia plaza eraldatuta lortu nahi zituen helburuak.

Donostian, 2025eko maiatzaren 21ean

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea